



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 26koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Ordiziako Udalak HJE 15 - Txindoki Pasealekuko 15.6 EUan sustatzen duen Ordiziako Hirigintza Plangintzaren Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2018ko martxoaren 20an Ordiziako Udalak osatu zuen Hirigintzako Jardute Eremua (HJE) 15 - Txindoki Pasealekuan 15.6 EU-Egikaritzapen Eremuari dagokion Ordiziako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategiko ohikoa, aurrerantzean Plana, abiarazteko eskabidea, 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrak, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, ebazten dutenari men eginez.

Eskariak honako dokumentazio hau zekarren atxikita: *HJE 15 - Txindoki Pasealekuan 15.6 EUari dagokion Ordiziako Hirigintza Plangintzaren Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren zirriborria*, 2017ko abenduko data duena eta LKS Ingenieria, Koop. Elkartek egina; hasierako dokumentu estrategikoa, LKS Ingenieria, Koop. Elkartek eta Geotechek idatzia, 2018ko martxoan; 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, V. Eranskinean dakarren formularioa.

2018ko apirilaren 23an ekin zitzaion kontsulten izapideari, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 19. artikuluan, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak, 9. artikuluan agindutakoaren arabera. Administrazio publiko eta interesdun hauei egin zien kontsulta ingurumen-organoak:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari
- Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusiari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurunekeo Zuzendaritza Nagusiari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoari (URAr, gomendioz)
- Landarlan Ingurumen Elkarteari
- «Eguzkizaleak» aisialdirako elkarteari
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkarteari

Egun horretan bertan, eragindako administrazio publikoen eta pertsona interesdunen eskura jarri ziren Planaren zirriborria, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean, planaren gainean interesa izan dezaketenak identifikatzeko.



Legerian zehaztutako epea amaitu ostean, Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordezaren erantzuna, eta Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzarena, Eusko Jaurlaritzakoak biak, eta Uraren Euskal Agentziarena jaso dira.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 19. artikuluan dionaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasangarri bat sustatzea helburu dela.

Halaber, 3/1998 Lege Orokorrak, otsailaren 27koak, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoak, 42. artikuluan xedatzen duenaren arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egokiro bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Era berean, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 6.1.b) artikuluan ezarritakoa aplikatuta, planei eta programei ere ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie, bai eta haien aldaketei ere, baldin eta Administrazio publiko batek onartzen baditu eta horiek legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira Natura 2000 Sareko guneei eragiteagatik 42/2007 Legeak, abenduaren 13koak, Natura Ondare eta Biodibertsitateari buruzkoak, aurreikusitako baldintzetan.

3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, 46.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, ebaluazio bateratua egin behar da, ingurumen-ebaluazio estrategiko gisa ulertuta, arauaren I. eranskinaren A) ataleko planei dagokienez; hortaz, plan horien artean dago HJE15 - Txindoki Pasealekuko 15.6 EUari buruzko Ordiziako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala.

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen du zer dokumentu erantsi behar zaizkion hasierako eskabide horri, eta, 21/2013 Legeari, abenduaren 9koari, aurka egiten ez dionetan, 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 8. artikulua bidez zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukari buruzkoak, bai eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, bere I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukari eta ingurumen-jasangarritasuneko txostenaren edukari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutakoari jarraiki, espedienteko txostena aztertu da eta hauek guztiak ikusi dira: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskadiko Ingurumena Babestekoak; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa; eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Soilik ingurumen-ondorioetarako HJE 15 - Txindoki Pasealekuko 15.6 EUan Ordiziako Hirigintza Plangintzaren Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua formulatzea, jarraian doazen baldintzetan:

1.- Planaren xedea

Ordiziako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntual honen egitekoa mugatzen da EU 15.6 egikaritzapen unitatea antolatuzera, HJE 15 - Txindoki Pasealekuan barneratutako gainerako lurzorua kontsolidatuta geratzen direlarik egun duten hirigintza-egoeran.

Planaren helburuak hauek dira:

- Egikaritzapen Eremu berri bat, 15.6 izena duena, mugarritzea, Orkli Koop. Elkartea lantegiaren hedapenerako berrantolamendu urbanistikoa ematen zaien sailak barnebiltzen dituen haren barruan.
- Eremu urbanistiko horri egiturazko antolamendu zehatza eman ahal izatea, Orkli Koop. Elkartea enpresak gaur egun dituen instalazioen jarraian hedapena egitea ahalbidetzeko.
- 15.6 EUari dagozkion lursailak lehendanik duen lur-zatiarekin bategitea ahalbidetzea, Orkli Koop. Elkartearen jabetzakoekin egitura industrial bakarra sortu ahal izateko, indarrean dagoen araubidean ezartzen den mekanikari eutsiz. Hartarako, Aramako sakabanatuekiko loturako bidea lekuz aldatu egiten da, bide horren ardatza 10,5 metro inguru mendebalderago eramanez, egungo Orkli Koop. Elkartearen eraikinari itsatsita beste eraikin berri bat eraiki ahal izateko.
- Aparkaleku-zuzkidura Orkli Koop. Elkartek Ordizia eta Aramako mugapeetan dituen lur-zati industrialetan egon dadila ahalbidetzea, indarrean dagoen plangintzak agintzen duen eran.

Laburbilduz, aldaketarekin proposatutako jarduketak honakoak dira:

- Aurreikusten den antolamendutik eratorriten da lur-zati eraikigarri bakarra, egungo eraikuntzaren jarraian geratzen dena. Hirigintza-eremu berriak Orkli Koop. Elkartearen beharrak asetzen dituen eraikigarritasuna eta baldintza morfologikoak betetzen ditu.
- Lurzoru-arrasaren gainetik 7.450 m²t-ko gehieneko eraikigarritasuna eta lurzorua-arrasaren azpitik 8.300 m²t-ko gehieneko eraikigarritasuna ezartzen da. Eraikigarritasun hori koherentea da lurzorua-arrasaren gainetik gehieneko hiru solairu (BS+2) eta lurzorua-arrasaz azpitik bi solairuko eraikuntza-profilarekin.

Lurzoru-arrasaz azpiko eraikigarritasuna Hirigintza Hitzarmenean azaltzen dena baino handiagoa da. Horren zergatia da lurzorua-arrasaz azpiko eraikuntzaren azterketa zehatzagoa egin dela, etorkizuneko eraikinean aparkalekuak kokatzeko gaitasuna gorenera eramateko. Etorkizuneko eraikinaren lurzorua-arrasaz azpiko bi solairuak osagai erabakigarriak dira Orklik Ordizian eta Araman duen unitate funtzionala behar besteko aparkalekuz hornitzeko darabilen estrategian. Halaber, berariazko lerrokamenduak ezartzen dira lurzorua-arrasaz azpiko eraikuntza horretarako.

Etorkizuneko eraikinaren gehieneko garaiera bat dator erantsi nahi zion egungo eraikinaren altuerarekin.

Etorkizuneko eraikinaren behe solairuko zolataren kota bat dator egungo eraikinaren kotarekin. Urbanizazioak proposatzen du urbanizazioaren kota zertxobait goratzea; altxatze hori



nabarmenagoa da Amundarain ibaiaren ibilgura hurbildu ahala. Ibaiertzeko oinezkoen pasealekua gaur egun 140,60ko kotan dago, aurreikusten den eraikinaren goieran.

- Proposatzen den antolamenduak aldatu egiten du Aramako sakabanatuekiko loturaren ibilbidea. Errepide horren ardatza 10,5 metro inguru mendebalderago eramaten da, egungo Orkli Koop. Elkartearen eraikinaren segidan eraikin berria egin ahal izateko.

Bide berriak zabalera handiagoa du egun Amundarain ibaia zeharkatzen duen zubiarekin konektatzeko. Errepide horrekin batera egun dauden aparkalekuak berregiten dira eta espaloi zabalak eransten zaizkio.

- Bestalde, eraikitako 100 m²t bakoitzeko zuhaitz bat landatu beharra ezartzen da. Lehenetasunez, eremuaren mendebaldean dagoen eraikinaren eta aurreikusten den oinezkoen pasealeku berriaren artean ezarriko da landaredia, eta, hala badagokio, ibaiertzeko oinezkoen eta errepidearen arteko mugartean. Ez balitz egingarria landaredi hori guztia 15.6 EU berriaren barnean landatzea, Ordiziako Udalak hartarako izendatuko dituen lursail publikoetan landatuko dira.

2.- Ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentuaren edukia:

Ingurumen-azterlan estrategikoak barne hartu beharko du 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, IV. eranskinean ezarritako edukia, eta hori 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak, II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da, betiere aipatu dekretuko I. eranskinean jasotakoa kontuan izanik.

Eremuaren ezaugarriak eta garatu nahi diren jarduketak kontuan izanik, gai hauek jaso beharko dira:

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; nagusiki, **2020rako IV. Ingurumen Esparru Programako** helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Zehazki, kontuan hartu beharko da nola planak barne hartzen duen 1.3 jarduketa-ildoaren 9. jarduketa, zeinak honako hau ezartzen baitu: *«lurralde-antolamendu adimentsu bat ezartzearen alde egitea, zeinak populazio-dentsitate handiagoak lehenetsiko baititu eta lurzorua erabileren konbinazioa eta lurzorua kontsumoaren optimizazioa bultzatuko baititu, betiere lurzorua berrerabilera eta lehengoratzeko lehenetsita»*.

Horretaz gain, 3/1998 Legea Orokorrak, otsailaren 27koak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babestekoak, biltzen dituen irizpideak eta 1/2014 Legegintzako Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, biltzen dituenak jaso beharko ditu.

211/2012 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute planaren ingurumen-ebaluazioa:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatzen babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiriaren barriadura eta mugikortasun behartua saihestea, eta, horretarako, irisgarritasuna sustatzea, lurzorua erabileren plangintza integratuaren bidez, mugikortasunaren bidez eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuak sustatuz.
- c) Lurzorua zigilatzea murriztea, lurzoru jasangarritasun handiagok erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.



- e) Habitataketan eta espezieetan, ingurumen naturala eta konektibitate ekologikoa zaindu eta hobetzea.
- f) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Energia aurrezteko, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- h) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien pean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- i) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- j) Aldaketa klimatikoaren aurreko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kalte arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- k) Arrisku naturalak gutxitzea.

Gainera, eta plan honetarako, zehazki, irizpide gehigarri hauek proposatu dira:

- Paisaia-faktorea udal-plangintzan txertatzea. Lurraldearen gaineko esku-hartzeak egokiro integratzea paisaian; batez ere, azpiegiturei eta ekonomia-jardueretarako eremuei dagozkien esku-hartzeetan.
- Hiriguneko berdeguneen eta ibai-tarteen kalitatea hobetzea (ibaiertzaren m² berreskuratuak).
- Hirigunearen integrazio naturala sustatzea: Elementu naturalekin (ibilguak...) loturiko korridore ekologikoak sor daitezkeen ahalbidetzea, biodibertsitate-sarearen barruan (hiriguneko korridore berdeen m²-ak).
- Gainazal bigunen eta haietan dagoen landaretzaren babesa indartzea (lurzoruaren m² bider iragazkortasun-koefizientea).

Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlanak kontuan hartu behar du proposatutako jarduketetan sartzen direla ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak, aipatutako garapen jasangarriko printzipioetatik datozenak.

B. Ingurumen-ebaluazioaren esparru geografikoa

Ordiziako udalerriko mugapean dagoen 15.6 EU eremu industrialak mugakide du Hegoaldetik GI-2133 errepidea, Ordiziatik Zaldibiara doana; Ekialdetik, GI-2133 errepidea eta Aramako sakabanatuak lortzen dituen errepidea; Mendebaldetik, Orkli lantegiko eraikinetako bat; eta Iparraldetik, Zaldibia edo Amundarain ibaia.

Hiri-lurzoru industrialak da, 7.951 m²-koa, Orkli Koop. Elkarteak duen lurzati eraiki gabea, une honetan aparkalekua dena eta gune publikoa (GI-2133 errepidea, Ordiziatik Zaldibiara doana, Aramako sakabanatuekin lortzen duen errepide-zatia) hari atxikitako aparkalekuekin.

C. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Ingurumena babestu, zaindu eta hobetu beharrak, ekosistemen eta haien zerbitzuen galera eta erresilientziaren murrizketa mugatuz, erakartzen du lurzoruaren antolamenduak aintzat hartu behar duela Planaren esparruan dagoen natura-kapitala, erabakiak hartzeko prozedura osoan zehar; hau da, kontuan izan behar dituela natura-balio nabarmenak dituzten ingurumen-eremu garrantzizkoak: ingurumen-babeseko araubideren bat duten eremu guztiak, nazioarteko hitzarmenetatik eratorriak nahiz natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzeko legeria egikaritzeko arau-xedapen orokorrak direnak, hala nola lurralde- eta hirigintza-antolamendutik eratorritako babes-araubideren bat duten natura-inguruneak.

Planaren eremuaren iparraldean eta harekin muga eginez Zaldibia edo Amundarain ibaia dago, Oria Garaia (ES12005) Babes Bereziko Eremuan barne hartuta; berez, Plan honen eremua zati batean Oria Garaia BBEaren barnean aurkitzen da, ibaiertzetik 18 metroko lur-zerrenda bat hartzen baitu haren mugarteak.

Bestalde, uholde-arriskuari dagokionez, aztergai den eremua 100 urteko errepikatze-denbora duen uholde-eraginpeko esparruan aurkitzen da bere osotasunean. Kantauri Ekialdeko Mugape



Hidrografikoko Uholde Arriskuen Kudeaketa Plana 2015-2021 dokumentuaren arabera, aztergai den eremua Beasain-Ordizia ARPSI-Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremuaren barnean dago lehenetsun handieneko mailan barneratuta.

Halaber, ohartarazi behar da Planaren eremu osoa dagoela balizko lurzoru kutsatuen inbentarioaren barnean.

D. Jarduketak egiteko egokiak ez diren inguruak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterlan estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duena.

Ingurumen ondorioetarako garrantzitsuak diren eremuak, Ebazpen honetako aurreko paragrafoan jasotakoak, Planaren aldaketan aurreikusitako jarduketak hartzeko desegokitzat jotzen dira, horrela egitea aurretik deskribatutako helburuen aurkakoa bailitzateke. Aldiz, ingurumen- edo kultura-balio urriak edo egun ingurumen-arriskuak dituzten eremuak, auzo, herri eta hirietako erdiguneetako eremu degradatu edo hondatuak, esaterako, jarduketa horien kokapena sustatzeko egokiagozat hartu behar dira.

Kontuan hartu beharreko ingurumen-arriskuei dagokienez, hauek dira garrantzitsuenak:

- Planaren eremua Uholde Arrisku Garrantzitsuko Eremu baten barnean dago (Beasain-Ordizia ES017-GIP-14-1). 100 urtean behingo errepikatze-denbora du bere osotasunean, eta Lehenetsuneko Fluxu Eremutik kanpo geratzen da.
- Planaren eremuaren zati bat Oria Garaia (ES12005) KBE-Kontserbazio Bereziko Eremuaren mugartean aurkitzen da; hori dela eta, aintzat hartu beharko dira ingurumen-balioko elementuei eragin diezaieketen jarduketei buruz xedatuta dauden arau guztiak (Natura 2000 Sarearen baitako guneen aldarrikapenak, demagun, HBBE-Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak eta KBEak, eta arriskuan dauden espezieen kudeaketa planak, besteak beste).
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak (20076-00012 eta 20076-00078 kodekoak) dituen lurzati batean dago.
- Halaber, aintzat hartu beharko dira 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak, ezartzen dituen mugapenak, eta alor hori ere aintzat hartu beharko da Azterlanean; beronetan ziurtatu beharko da bete egingo direla 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak, kalitate akustikoaren alorrean ezartzen dituen helburuak.

E. Egindako aurretiatzko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten tramitean jasotako txostenetako ingurumen arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

– Kontuan izanik egikaritzapen-unitateak muga egiten duela Amundarain ibaiarekin eta hura Oria Garaia (ES2120005) KBE-Kontserbazio Bereziko Eremuan barneratuta dagoela, analisi bat aurkeztu da Natura 2000 Sareko elementu horren baitan Planak izan ditzakeen ondorioak aztertuz, eta ebatzi da ez dela ondorio nabarmenik pairatuko haren zaintzari eta funtzionalitateari dagokionez. Halaz eta guztiz ere, badira zenbait gorabehera analisi horretan behar beste aintzat hartu ez direnak eta egin behar den Ingurumen Azterlan Estrategikoan jaso behar liratekeenak:

- Beharrezkoa da proposatzen den pasealeku berriak ahalik eta gutxien jan dezala zortasuneko eremua; horretarako, murriztu egin behar da haren zabalera, landaredi-



zerrenda bat sor dadin bertako espezieekin, landare-pantaila gisakoa izango dena pasealeku hori eta ibaiaren artean, haren luzera osoan.

- Arestian esandakoaren ildoan, proposatzen diren aukeretan zehatzago aztertu behar da 1. aukera, aintzat hartuz proposatzen den pasealekua eraikinera hurbildu litekeela gainerako eremua libre utziz, horrek zilegituko bailuke ibaiertzak askoz zabalago berregitea 2. aukeran aurreikusitakoan baino.
- Aztertu egin behar da Planak nola betetzen dituen 34/2015 Dekretuak, martxoaren 17koak, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituenak, ezartzen dituen ondorengo gidalerro hauek:
 - 6.D.2 gidalerroa: *Jada urbanizatuta dauden eremuetan, ibilguaren eta urbanizazioaren arteko lursailen erabilerak eta aktibitateak toki horretako kontserbazio helburuetara bideratzea sustatuko da, eta helburu horiek betetzen laguntzen duten jarduerak bultzatuko dira.*
 - 6.D.6 gidalerroa: *Halaber, hiriguneetatik barrena igarotzen diren ibai- eta estuario-tarteei eta erriberak okupatuta dituzten guneei dagokienez, hirigunea eta industria-lurzoruak eraberritzea eta birgaitzea xede duten planetan ibaiertzetan espazio libreak uzteko xedapenak jasota izatea sustatuko dute udalek; izan ere, horrela, erriberetako landaredia hobetzea eta ibaiertzak berriro landarez janztea bultzatuko da, ahal den tarte gehienetan.*
- Pasealekua diseinatu behar da egungo lurzoru-arrasa aldaraziko duen betelanik gabe eta, ahal den neurrian, zoru iragazkorrarekin, eta kendu egin behar da gaur egun zortasun-eremua hartzen duen itxitura.
- Ibaien eta Erreken antolamenduko Lurraldearen Arloko Planean xedatzen den eran, bai eraikinak eta solairuen hegalek ibai-ibilgura duten distantziak 12 metrokoa izan behar du.
- Hidrologia Planaren 40.4 artikulua agintzen duena betez, ziurtatu behar da eremuko betelanak ez duela erakarriko huste-ahalmenaren murrizketa nabarmenik, ezta hirugarrenentzako ondorioz ere, eremu horretarako ezarrita dauden baldintzapenak betez.
- Aurkeztu behar da aurreikusten diren erabilpen berriek izango dituzten ur-eskakizun berrien zenbatespen bat, bai eta horniduraz eta saneamenduz arduratzen den entitatearen txostena ere, ziurtatuko duena egungo azpiegitura aski dela eskakizun berrien zerbitzua eta garapen berriaren betebeharrak asetzeko.
- Aztertu behar dira kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan aritzeak sorrarazten dituen arriskuak, eta nola eragin dezakeen horrek Zaldibia ibaiko uraren kalitatean.

F. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterlan estrategikoak 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta hain zuzen, 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoarekin bat etorritz, garatzen diren atalek eskema metodologiko honi erantzun behar diote:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekin duten harremana.
2. Ingurumenaren egungo egoera.
3. Ingurumenean gerta daitezkeen ondorio esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Alternatibak aukeratzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez teknikoa.



Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterlan estrategikoak (aurrerantzean, Azterlana) hurrengo alderdietan sakondu behar duela, gutxienez, jarraian adierazten den zabalatasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta beste plan eta programa batzuekin duten harremana

Azterketak planaren helburu nagusien laburpen labur bat izango du, eta beste plan eta programa lotuekin dituzten harremanei buruzko azterketa labur bat. Gainera, ingurumen-alderdiak planaren prestaketan nola txertatzen diren azaldu beharko du. Aztertu beharko da planaren aplikazioak nola laguntzen duen ingurumen-helburuak txertatzen.

Azterlanak era espezifikoan justifikatu beharko du Ebazpen honetako Lehenengoa .2.A atalean jasotako ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak kontuan izan direla. Justifikazio hori bai arauetan bai plan partzialean bertan ezarritako adierazle eta mugen erabileran oinarrituko da.

Ingurumen-azterlan estrategikoak hierarkikoki goi-mailakoak diren lurralde- eta sektore-antolamenduko planekin bateragarria dela dioen azterketa bat aurkeztu beharko du. Gutxienez, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) eta LAG horien Berrikuspena
- Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionalaren LPPa
- Ibaiertzen eta Ibaien LPSa
- Gipuzkoako bizikleta bideen LPSa
- Ordiziako Arau Subsidiarioak
- HJE 15 - Txindoki Pasealekuko 15.6 EUan sustatzen duen Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala
- Ordiziako Hirigintza Plangintza (izapidetzen)

Planaren helburu eta jarduketan eta eremuan eragina duten plan eta programen helburu eta zehaztapenen arteko koherentzia eta erlazioa zehaztuko dira.

Halaber, eremuari aplikatu beharreko gainerako planei dagokienez izan daitezkeen bigarren mailako ondorioak, ondorio metakorrak eta sinergikoak identifikatuko dira. Hemen identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero, Planaren eraginak identifikatu eta baloratzeko atalean ebaluatuko dira. Helburu komunak lortzea izango da xedea, eta horrez gain, beste planen helburu eta jarduketa-ildoekiko gainjartze, gatazka edo bateraezintasunak ager daitezkeen kasuetan planaren jarduketarako alternatibak ebaluatzea.

2. Ingurumenaren egungo egoera

Azterlanak ingurumenaren gaur egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, era nabarmenean eragin diezaiekeen guneen eta Planaren aplikazioa egiten ez bada izan dezakeen bilakaeraren ingurumen-ezaugarriak zehaztuz, klima-aldaketa kontuan izanik.

Garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, eta bereziki Ebazpen honetako Lehenengoa.2.C atalean jasotako edozein gunerekin zerikusia duten arazoak, ingurumenaren aldetik nabarmenak direnak.

Era berean, lurraldearen ingurumen-unitate homogeenak zehaztuko dira, haien paisaia-ezaugarrien eta natura-baliabideen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, Plan honen izaerarekiko proportzioa duen eskalan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleen erabileran bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren adierazleen oinarritzko panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, bai eta lurraldeari eta ingurumenari buruzko Eustatenak ere,



eta Ebazpen honetako aurreko ataletan adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Kontuan izan beharko dira, gutxienez, EAEko lurraldeari dagozkion adierazle hauek:

- Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzoruen azalera.
- Komunikazio- eta garraio-azpiegituretara bideratutako azaleraren ehunekoa.
- Espazio libreetara zuzenduko den azaleraren ehunekoa.
- Kalitatean edo kontserbazio-egoeran hobera egin duten habitat naturalen azalera.
- Atmosfera-, soinu- eta argi-kutsaduraren adierazleak.

Azterlanak aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi berak adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak, kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko izandako balizko zailtasunak justifikatuz. Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterlanak; hala, ingurumena zaintzeko programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuko da.

3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak

Atal horretan ingurumenean eragin ditzakeen ondorio adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, gizakien osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea, ondare historikoa barne, klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina –bereziki, Planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia–, ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia; faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskaintutako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du Azterlanak, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete. Horrela identifikatutako ekintza bakoitzerako, espero daitezkeen ingurumen-ondorio gertagarriak deskribatuko dira eta, hala behar denean, ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertagaitza dela justifikatu beharko da. Eta identifikatutako inpaktu guztietatik berariaz nabarmendu beharko dira garrantzitsutzat hartutakoak.

Planaren proposamenak kontuan izanda, aurreikusitako jarduketan garapenetik eratorriko dira ondorio esanguratsuenak, eta azpimarragarrienak liriateke:

- Zaldibia edo Amundarain ibaian duen eragina; Natura 2000 Sarean (Oria Garaia KBE ES12005) barne hartuta dago, eta bide batez azterlan zehatza egin behar da Planaren garapenak Oria Garaia KBE (ES 12005)-aren zaintza-helburuetan izan dezakeen inpaktuari buruz.
- Planaren eremuan lurzoru kutsatuak egoteak lurzoru kutsatuen alorrean aplikagarria den legeria bete beharra dakar, haien kudeaketa egokia egin ahal izateko. Gainera, Zaldibia ibaiaren zein hurbil dagoen kontuan izanda, aintzat hartu behar da kutsatuta egon daitezkeen lurzoruetan esku-hartzeak sorraraz dezakeen arriskua ibai horretako uraren kalitaterako.
- Planaren garapenean airearen kalitatearen gaineko eraginak eta herritarrei eragindako eragozpenak sortuko dira, partikula emisioak, zaratak, bibrazioak, argi kutsadura, hondakin-sorketa eta istripuzko isurketak areagotuko baitira...

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Ingurumen-ebaluazioaren azken faseetan, alternatibarik egokiena hautatu ondoren, hartu beharreko neurri prebentibo, zuzentzaile eta, azken buruan, konpentsatzaileak garatuko dira, identifikatutako eraginak arintzeko; horrela, ingurumen-azterketa estrategikoan bertan ezarritako baldintzetan, Planaren aldaketak ingurumenean ondorio esanguratsurik ez duela sortuko bermatuko da. Ahal den heinean, garapen-tresna zehaztuko da eta bertan proposatutako neurrietako bakoitza ezarriko da.

Natura 2000 Sareko guneen zaintza-helburuak ez direla arriskuan aurkituko Planaren egikaritzapenagatik, eta 34/2015 Dekretuak, martxoaren 17koak, onesten dituen Gidalerroak, lehen aipatu ditugunak, aintzat hartuko direla ziurtatzeko behar besteko neurriak, arauak eta erregulazioak ezarriko dira.

Planaren eremuan dagoen uholde-arriskuaren arazoari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoko Uholde Arriskuen Kudeaketa Plana 2015-2021 dokumentuan aurreikusten denari eutsiko zaio uholde-arriskua duten eremuetan lurzorua erabileraren mugapenei dagokienez. Halaber, eta aipatu Hidrologia Plan horren 40.4 artikuluan xedatzen denari jarraituz, ziurtatu beharko da proposatzen den betelanak ez duela eragingo huste-ahalmenaren murrizketa nabarmenik. Gainera, aintzat hartu beharko dira indarrean den legeriaren arabera ibilguak zaintzeko eremuari aplikagarriak zaizkion baldintzatzaileak.

Gainera, hala badagokio, neurri horien kostu ekonomikoaren zenbatespena eta gauatzeko behar den denboraren plangintza zehaztu beharko dira.

Bestalde, planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko dira, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

Azkenik, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua Klima-aldaketa arintzeko eta Klima-aldaketara egokitzeko (IHOBE)».

5. Alternatibak hautatzeko prozesua

Honako hau bilduko da: alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa eta Planaren helburuekiko bateragarritasuna eta proportzionaltasuna justifikatuko dituena, batez ere Ebazpen honetako Lehenengo 2.A atalean adierazitako ingurumen-helburuei dagokienez. Azterlan horretan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

Ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartu behar du ezer ez egitearen aukera; aukera horretan, Planaren eremuak gaur egungo egoeran jarraituko luke. Plana aplikatu ez eta gaur egungo egoeran jarraituz gero, aztertu beharko da zein izango litzatekeen arlo garrantzitsuen eboluzio gertagarriena.

Bestalde, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak helarazi duen txostenean azaltzen den moduan, balioetsi behar da 1. aukera, aintzat hartuz proposatzen den pasealekua eraikineren hurbildu litekeela gainerako eremua libre utziz, horrek zilegituko bailuke ibaiertzak askoz zabalago berregitea 2. aukeran aurreikusitakoan baino.

Atala bukatzeko hautatutako aukera argudiatu egin beharko da, eta, nolahi ere, bermatu egin beharko da hautatutako aukera teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria dela, eta ingurumenaren ondare eta ingurumen osagaiei ahal bezain kalte txikiena eragiteko ahalegina egin beharko da. Edonola ere, lehen adierazi den bezala, behar bezala justifikatu beharko da Planeko ekintzen garapenak ez dituela kaltetuko Natura Sareko guneak kontserbatzeko helburuak.

6. Ingurumena zaintzeko programa



Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du eta plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira bertan. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, ondorio garrantzitsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, Ebazpen honen Lehenengo 2.F.2 atala betetzeko, bai eta kasu bakoitzean, datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

7. Laburpen ez teknikoa

Azterlanak aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez tekniko bat izango du; publikoak oro har ulertzeko moduko informazio zehatza izango du, aztertutako alderdi guztiak landuko ditu eta, era berean, informazio grafikoa izango du, dokumentu autoaskia eta azterlanarekiko independentea izan dadin.

G. Hasierako onespeneren ondoren sustatzaileak kontsultatu beharko dituen eraginpeko administrazio publikoak eta publiko interesdunaren identifikazioa.

Ebazpen honetako kontsulten izapidea betetzeko erabilitako zerrenda huraxe hartuko da gai honen eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen zerrenda osatzeko, halaxe xedatzen baitute 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 12. artikuluan, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 22. artikuluan. Ingurumen-organoak, ebazpen honetako aurreko ataletan aipatu bezala, honako hauei kontsulta egin die:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari
- Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariordetzari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturretako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusiari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurunekeko Zuzendaritza Nagusiari
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoari (URARI, gomendioz)
- Landarlan Ingurumen Elkarteari
- «Eguzkizaleak» aisialdirako elkarteari
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkarteari

H. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten modalitateen, iraupenaren eta epeen definizioa.

Informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikoa izateko eskubidea bermatzeko, organo erabakitzaileak, edo, hala badagokio, sustatzaileak (aztergai dugun kasuan organo biak bat datoz), jendaurreko informazioaren izapidearen pean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, 45 egunez gutxienez.

Halaber, epe horretan bertan, aurreko atalean identifikatu diren eragindako administrazio publikoen eta pertsona interesdunen iritzia jaso beharko da, gutxienez.

21/2013 Legearen 17.3 artikulua aplikatuz, ingurumen-azterketa estrategikoa egiteko eta lege horren 20., 21., 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako jendaurreko informazioa eta kontsultak gauzatzeko gehieneko epea hamabost hilabetekoa izango da, irismen-dokumentua sustatzaileari jakinarazitako egunetik zenbatzen hasita.

I. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.



21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 16. artikuluan dioenaren arabera, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egingo dute azterlana, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterlanaren egileak identifikatu egin behar dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak izena, abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea edo helburu berberetarako balio duen beste dokumentu bat izango ditu. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterlanaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita.

Dokumentazioa aurkezteko, honako jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, bai haien artean bai eta aurretik aurkeztutakoekin ere, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoan atalak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, atal batean proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu beharko da, behar bezala geoerreferentziatua, behar duten ataletan.
5. Plano guztiak kodearekin eta izenburuarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
6. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
7. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek dagokion elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
8. Informazio jakin bat dokumentuko atalen baten ongitze edo zuzentze gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den atala mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu ongitzearen edo zuzentzearen ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutak edo ordezkaturak jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, atalak, paragrafoak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipaturako jarraibideak betetzen ez badira, tramite gehigarri bat eska daiteke kontraesankorrak edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, horrek prozeduraren ebazpenean dakarren atzerapenarekin.
9. Eskaera **IKS-eem sistemaren** bidez aurkeztu beharko da, aplikatu daitezkeen eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta formularioak erabilia, zehazki, helbide honetan:

<http://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumenari-buruzko-izapide-elektronikoen-gida/web01-a2inquiru/eu/>



10. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egiteko aukera eman beharko du. Luzera handiagoko dokumentuak zatitu egin behar dira sisteman txertatzeko.
11. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat txertatuko da, adierazitako ataletako bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkezten denean .pdf dokumentu baterako, han adierazitako orrialde-zenbakiak bat etorri behar du orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» eremuan adierazi behar denarekin.
12. Dokumentu kartografikoak .pdf formatuan eta .shp formatuan entregatu beharko dira. Plano horiek kode batekin eta izenburuarekin identifikatu beharko dira; halaber, legenda bat izan beharko dute eta adierazitako datuak ongi interpretatzeko beharrezko sinbologia. Shape fitxategiak ongi manipulatu ahal izateko, ez dute 10 Mb-tik gorakoak izan behar.
13. Organo sustatzaileak datuak igortzean datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia betetzen dela bermatu beharko du beti.

Bigarrena.- Ebazpen hau Ordiziako Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 26a



Ivan Pedreira Lanchas
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria
Director de Administración Ambiental